

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Hutsune asko gurean

Jone eta Ane Marina Irakulis (*Fernando Irakulis euskal preso politikoaren ilobak*)

Berriro ere zorioneko Gabonak eta gurean aulki horrek hutsik jarraitzen du. Aurtan ere ezingo zara gure artean egon. Amamak maitasunez prestatutako jakiak dauzkagu mahai gainean, beti bezala ez dira faltako karakolak eta intxaur-saltsa gurean. Akaso gogoratzen duzu zer-nolako zaporea zeukaten? Ez, 21 urte daramatzazu horrelakorik usaindu ere egin gabe.

Hori datorkigu burura jaki gozo horiek ikusten ditugunean, zure hutsunea hain nabari egiten den afari hasieran. Bai osaba, inoiz Gabon mahai honen inguru-

ruan ikusi ez zaitugun arren zure hutsunea sumatzen dugu, aurtengoan aititerena sumatuko dugun bezala; zoritxarrez ez dugu gehiagotan bere irribarrea mahai honen inguruan ikusiko.

Afalostean, Xabier *Hator hator* kantatzen hasiko da, alde batetik bestera mugitzen guztiak kontrolatu nahian. Horrelakoetan telebistako iragarki hura gogoratzen dugu (*vuelve a casa por navidad*) eta gure begirada etxeko atearen bila hasiko da, ea iragarki hartan bezala ate joka agertzen zaren. Baina ez, aurtan ere ez zara ate horretatik pasatuko.

Negu hotz honetan beste hutsune bat ere egongo da gurean, Madariren zain egongo gara beheko suaren ondoko txokoa zeinek hartu borrokatzeko prest,

baina honek ere kale egingo digu. Zuen eskubideen alde lan egiten zuen Madarik eta orain preso dago zuek bezala.

Osaba, badakigu duela sei urte kalean egon beharko zenukeela, badakigu kartzelan egon arren Euskal Herrian egon beharko zenukeela eta ez dugu ulertzen oraindik ere zergatik zauden hor.

Txiki-txikitatik milaka kilometro egin behar izan ditugu zu ikusteko, oinez hasi orduko jada gure gorputzek milaka kilometrotako bidaiak jasan izan dituzte eta trukean, gehienez bi ordu egon ahal izan gara zurekin, baina hala ere merezi du.

Ez dugu Olentzeroan sinesten, ez daukagu horretarako adinik, baina beti egiten diogu eskaera bera; Euskal Herritik kanpora zaudeten euskal preso guztiak

lehenbailehen Euskal Herrira ekartzea. Badakigu lan gogorra dela, baina azkenean lortuko dugun esperantza daukagu.

Aurtan, tamalez, badakigu ez dela gertatuko. Baina gaurdanik eskatuz gero, Euskal Herriari egin diezaiokeen oparirik politena egingo dio, *Euskal Presoak Euskal Herrira* ekarriko ditu.

Hau bete dadin abenduaren 28an Euskal Herriko herri guztietan enkarteladak egongo dira, Madarik esaten zigun Euskal Herria zutik jarri behar genuela euskal presoek eskubideen defentsan eta lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu euskal herritar guztiei gonbidapena egiteko. Gu Zornotzako udaletxeko plazan egongo gara, eta zu?

montxo



galdeiozu... ?



**MIXEL
BERHOKOIRIGOIN**

ELBko lehendakaria

Ez al duzu uste laborantza ganberaren aldarrikapenak kutsu politikoa hartu duela, ekonomikoa baino gehiago?

Lontxo Beobide (Baiona)

Denak politikoak dira: laborantza ganbera aldarrikatzea edo ez aldarrikatzea! ELBk beti erran du Euskal Herriaren eraikitzean bere zatia ekarri nahi duela egitura sozial bezala. Estatuak gure eskakizuna ezartzen du Euskal Herriko kontestu politikoan hobeki baztertzeko. Dio Errepublikaren printzipioek manatzen dutela Estatuaren lurralde guztiak berdin tratatzea, eta ezin dela egin Euskal Herriarentzat zerbait berezi, euskaldunak garelako argumentuarekin. Horri ihardesten diogu hamar urte honetan Estatuak onartzen duela Euskal Herria ez dela bakarrik Frantziako beste lurralde arrunt bat. Hortarik sortu dira garapen kontseilua, hautetsien kontseilua, konbenio berezia, hizkuntz kontseilua... Eginak diren urratsek zentzu bat badute, eta mugimendu horrek laborantzako munduan ere sartu behar du!

Abenduaren 26tik aurrera **Joane Somarriba • txirrindularia** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta



Koldo Almandoz

Konjuntibitis Christmas

Konjuntibitis baten erruz, Ray Charlesen moduan pasa dut astea. *Take these chains from my heart and set me free*. Etxean, aspaldian erabiltzen ez nuen pijaman sartuta eta eguzkitako betaurreko beltzak jantzita. Pose totala.

Konjuntibitisa. Argiak itsutzen du. Min emateraino. Euskal Herrian bizi dugun egoerarekin analogiak egitea pentsatu dut. *Konjuntibitisa eta gatazka politikoa*. Izenburua polita. Baina idatzitakoa errepasatu dudanean, pulpitu altuegi batetara igo naizela konturatu eta ezabatu egin dut. *Hirusta* amaitzeko geratzen zaizkidan lerroak beste izenburu baten pean idatziko ditut. Bai, badakit, bestea hobe dela, baina Christmas-ean gaude.

Iaz, eguberritan, argitxo zuriz apainduri-ko lokarriak jarri nituen. Urte osoa pasa dute egongelako zutabe eta sapaiean esekita. Izarrik gabeko gauetan pizten ditut. Izarrik

gabeko gaua dela erabakitzen dudanean. Eguberritan, gure herri eta hiriak Las Vegas *micromachine* bilakatzen dira eta zeruan, ez dugu izarren beharrik. Konstelazio guztiak zuhaitz eta balkoietatik zintzilik ditugu. Nik uste, asko garelako eguberrien ez alde, ez kontra gaudenak. Hala tokatzen da eta kitto. Eguberria eguberri da. Aberri Eguna, aberri eguna den bezalaxe. Eta nahi ta nahiez guztiok kutsatzen gaitu. Eskuartean duzun EUSKALDUNON EGUNKARIAK, euskaltzale jatorren izparrangiak adibidez, *toy's are us*-i konpetentzia egiten dio, bizikletak, erlojuak, pailaoen disko eta abarren zozketekin.

Aurtengo eguberria, Ray Charles moduan pasatzeko asmoa dut. Nahiz eta konjuntibitisak hoberuntz egin, pijama eta eguzkitako betaurreko beltzak jantzi eta *todo a cien* txinarrean erositako izarren argipean geratuko naiz. *Baby it's cold outside*.